

ARIKETAK

1 Izan ala ez izan

Pasarte hauek Manuel Olaizola Uztapiderenak dituzu, *Lehenago egunak gogoan* liburu-koak, eta bertan etxealdea nolakoa zuen kontatzen du.

Ea bada, hutsuneak zuzen betetzeko gauza zaren.

*Soroak eta barrutiak, denak muga baten barruan ...**(1)**...; eremu handiak halere.*

*Orain aldatuta dago. Lehen pagoa ...**(2)**... tokian, orain pinua dago. Pagoak bota ...**(3)**... han ere. Gaur mustatarako adina baldin bada, hostoa nolakoa den ikusteko. Zorioneko dirua! Izan ere, hango pagadi eder haiek botatzea lastima ...**(4)**... Hango itzal ederrak! Hango goroldio eder hura! Traje ederrenarekin joaten baldin ...**(5)**... ere, zikintzeko beldurragatik etzan zintezkeen han lasai.*

*Pagadi hura ezagutzen zuten eibartarrak ere, perretxikoak biltzera etortzen baitziren. Eibartar batek baino gehiagok esan ...**(6)**... dit niri:*


-Pagadi ura bota duanak etzeukak salbaziorik!

*Orain pinua han ere. Pagoak bota eta pinua sartu ...**(7)**... eta pagoak bezalako usainik ez du ...**(8)**... pinuak.*

*Perretxiko-tokia ere ...**(9)**... hura ederra. Behin baino gehiagotan amak bidali ...**(10)**... gintuen goizean "Tira, gosaltzeko perretxikoak ekarri!" esanda. Eta, joanez gero, seguru ekarriko genituzkeen.*

*Batez ere euria egin berria ...**(11)**... han ateratzen ziren perretxikoak! Kiloko hogei duroan, orain saltzen diren bezala, saldu ...**(12)**... baziren... Orain, merkeenak ere horrela saltzen ...**(13)**...; hogei durotik behera ez da orain perretxikorik. Lehenengo aldetik biltzen direnak, berriz, berrogei duro edo mila erreal.*

bazen	dira	izan	zen	ziren
bazen	diren	izan	zen	ziren
bazinen		izan	zen	ziren
		izaten		



2

Zalantza-dantza

Urtebete pasa da aldizkariarekin batera Zalantza-dantza liburuxka banatu genuenetik, baina, hala ere, iturria ez da agortzen. Ostera ere, begira, zenbat ariketa ekarri dugun argitalpen hartako aholkuak gogorazteko!

BERRIDATZI ESALDIOK:

1. Eta **ere bai** behar-beharrezkoa da nora joan nahi dugun adostea.

2. Hizlariak **ere** gaineratu zuen azaldutako baldintza guztiak bete egin behar direla.

3. Hirurok autoan etortzea erabaki duzuela? Bada, nik autoan **ere** etorri nahi dut.

4. **Oso ederra den** ikasgaia eman digu.

5. **Arriskutsua den** erantzun bat ematekotan daude.

6. Badira **soluzio erraza duten** ariketa asko.

7. Bilerako azken aztergaia **erreguak** eta galderak izaten dira.

8. Galera **garrantzitsuak** izan dira Burtsak behera egitean.

9. Helburuak lortzeko behar diren baliabideen gaineko adostasuna **gauzatu** zen bileraren bukaeran.

10. Azkenean, zuzendaritza-batzordearen txostena **baztertuta** gertatu zen.

11. **Azkenik esan**, etorri zaretenoi eskerrak eman nahi dizkizuegula, zuon arretagatik.

12. Hasieran, buru-belarri entzun nion hizlariari, baina **bi ordu eta gero** lokartu egin nintzen.

13. Lanpostua lortu nahi baduzu, **frantsesaren** ezaguera eduki behar duzu.

14. Gure autobuseko bidaiarion **gehiengoa** irteteko ordua aurreratzearen alde dago.

15. Egun on, jaun-andreok. **Gaurkoan**, azterketatxo bat egingo dugu.

ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU:

1. a) Batzarreko hizkuntza ofizialak euskara eta **gatzelania** izan ziren.
b) Batzarreko hizkuntza ofizialak euskara eta **gatzelera** izan ziren.
c) Batzarreko hizkuntza ofizialak euskara eta **espainiera** izan ziren.
2. a) Interneten ibili nahi baduzu, jai duzu **ingeleraz** ez badakizu.
b) Interneten ibili nahi baduzu, jai duzu **ingelesez** ez badakizu.
3. a) **Ariketen erdia** gaizki egin nuen.
b) **Ariketa erdiak** gaizki egin nuen.
c) **Ariketen erdiak** gaizki egin nituen.
d) **Ariketetatik erdiak** gaizki egin nituen.
e) **Ariketetarik erdiak** gaizki egin nituen.
f) **Ariketarik erdiak** gaizki egin nituen.
4. a) Britainia Handian ezkerretik gidatu behar da, baina hemen **eskubitik**.
b) Britainia Handian ezkerretik gidatu behar da, baina hemen **eskuinetik**.
c) Britainia Handian ezkerretik gidatu behar da, baina hemen **eskumatik**.
5. a) Neurri **estandar** jakin batzuk erabili behar ditugu altzariak egiteko.
b) Neurri **standar** jakin batzuk erabili behar ditugu altzariak egiteko.
c) Neurri **standard** jakin batzuk erabili behar ditugu altzariak egiteko.
6. a) Udan, **ordu bi t'erdietan** irteten gara lanetik.
b) Udan, **ordu bi ta erdietan** irteten gara lanetik.
c) Udan, **ordu bi eta erdietan** irteten gara lanetik.
7. a) **Agur t'erdi**, lagunok; berriz arte!
b) **Agur ta erdi**, lagunok; berriz arte!
c) **Agur eta erdi**, lagunok; berriz arte!
8. a) Eneko, beti bezala, berandu etorri zen; baina bera **ezik**, guztiok heldu ginen garaiz.
b) Eneko, beti bezala, berandu etorri zen; baina bera **izan ezik**, guztiok heldu ginen garaiz.
c) Eneko, beti bezala, berandu etorri zen; baina bera **ezezik**, guztiok heldu ginen garaiz.
d) Eneko, beti bezala, berandu etorri zen; baina bera **ez ezik**, guztiok heldu ginen garaiz.
9. a) Bazkarira, edaria **ezik**, janaria **ere** eraman beharko dugu.
b) Bazkarira, edaria **izan ezik**, janaria **ere** eraman beharko dugu.
c) Bazkarira, edaria **ez ezik**, janaria **ere** eraman beharko dugu.
d) Bazkarira, edaria **ezezik**, janaria **ere** eraman beharko dugu.
10. a) Ikastarora sartzeko **froga** bat egin behar duzu, eta bertan behar den gaitasuna baduzula **frogatu**.
b) Ikastarora sartzeko **proba** bat egin behar duzu, eta bertan behar den gaitasuna baduzula **probatu**.
c) Ikastarora sartzeko **froga** bat egin behar duzu, eta bertan behar den gaitasuna baduzula **probatu**.
d) Ikastarora sartzeko **proba** bat egin behar duzu, eta bertan behar den gaitasuna baduzula **frogatu**.
11. a) Ez omen dago kafea maite ez duen **funtzionaririk**.
b) Ez omen dago kafea maite ez duen **funtzionariorik**.
12. a) Aste honetan ez dut Edurne ikusi: **gaisorik** al dago?
b) Aste honetan ez dut Edurne ikusi: **gaixorik** al dago?
13. a) Maisu **gizagaixoak**, andereño **gajoak**: amaitu dira oporrak, irakasle **gaixoak**.
b) Maisu **gizagarajoak**, andereño **gajoak**: amaitu dira oporrak, irakasle **gaisoak**.
c) Maisu **gizajoak**, andereño **gajoak**: amaitu dira oporrak, irakasle **gaixoak**.
d) Maisu **gajoak**, andereño **gizajoak**: amaitu dira oporrak, irakasle **gaisoak**.
14. a) **Irakaslegoaren** eta **ikaslegoaren** arteko harremanak samurtu egin behar dira.
b) **Irakasleen** eta **ikasleen** arteko harremanak samurtu egin behar dira.
15. a) Ordutegia dela eta asaldatuta daude hemengo **langileak**.
b) Ordutegia dela eta gainean asaldatuta dago hemengo **langilegoa**.
c) Ordutegia dela eta gainean asaldatuta dago hemengo **langileria**.

SOLUZIOAK

1 Baldintzaren ingurukoak

IZAN ALA EZ IZAN:

1. ziren
2. zen
3. ziren
4. zen
5. bazinen
6. izan
7. zen
8. izaten
9. bazen
10. izan
11. bazen
12. izan
13. dira

2 Zalantza-dantza

BERRIDATZI ESALDIOK:

1. Eta nora joan nahi dugun adostea ere behar-beharrezkoa da.
2. Hizlariak gaineratu zuen azaldutako baldintza guztiak bete egin behar direla. Hizlariak hau ere gaineratu zuen: azaldutako baldintza guztiak bete egin behar dira. Azaldutako baldintza guztiak bete egin behar direla ere gaineratu zuen hizlariak.
3. Hirurok autoan etortzea erabaki duzuela? Bada, nik ere etorri nahi dut autoan.
4. Oso ikasgai ederra eman digu.
5. Erantzun arriskutsua ematekotan daude.
6. Ariketa askok soluzio erraza dute.
7. Bilerako azken aztergaitza eskariak eta galderak izaten dira.
8. Galera handiak/larriak izan dira Burtsak behera egitean.
9. Helburuak lortzeko ballabideak adostu ziren bileraren bukaeran.
10. Azkenean, zuzendaritza-batzordearen txostena baztertu (egin) zen.
11. Amaitzeko, etorri zareteneroi eskerrak eman nahi dizkizuegu, zuon arretagatik.
12. Hasieran, buru-belarri entzun nion hizlariari, baina bi orduren ondoren / bi ordu igaro eta gero lokartu egin nintzen.
13. Lanpostua lortu nahi baduzu, frantsesez jakin (egin) behar duzu.
14. Gure autobuseko bidaiari gehienak irfeteko ordua aurreratzearen alde daude.
15. Egun on, jaun-andreok. Gaur, azterketatxo bat egingo dugu.

ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU:

1. a eta c
2. b
3. c, d, e eta f
4. b (eta Bizkaian, c)
5. a
6. c
7. a (ohikoena) eta c
8. b
9. c
10. d
11. b
12. b
13. a
14. b
15. a (hobe) eta c